

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda aste honetarako

*Nafarroako Gobernuak jarduera berriak antolatu ditu uztailaren 16tik 22ra bitarteko asterako*

Astelehena, 2018.eko uztailak 16

[Aste honetan](#), Kultur programak hiru musika-proposamen dakarzkigu astean zehar: Cristina Rosenvinge, ostegunean, San Adriáen; Gozategi, ostiralean, Etxarri Aranatzen; eta Boîte à Musique, larunbatean, Lekunberrin. Bisita gidatu bat ere egingo da larunbatean, Lekunberriko Bikain gaztandegira, zehazki.

Landarte programak “Cuadrivector azketiano” jarduera eskainiko du, Azketan, Martin Etxauri Sainz de Murieta Txoren eskutik.



Nerabazerako pop musika gainditu eta pop independentearen ikono bihurtu da Christina Rosenvinge.

Erriberriko Antzerki Jaialdiaren XIX. edizioa ostiralean hasiko da, eta ondoko lanak erakutsiko dizkigu igandera arte: “GRIS/MAR”, “Luces de Bohemia”, “La Trobairitz Beatriz de Día”, “Mendoza”, “Negua”, “Tres tristes tigresas”, “La fiesta del viejo”.

Prestakuntzaren arloan, Nafarroako Museoak arte plastikoei buruzko tailer bat antolatuko du, haurrentzat, asteartetik ostiralera. Horrez gain, komisariotza-ikerketaren inguruko egoitza bat antolatuko du Huarte Zentroak. Eta Karlismoaren Museoak, Lizarran, “Escape room: El robo del Toisón” proposamena luzatuko digu.

Erakusketei dagokienez, “Javier Ciga Echandi: Figurazioa eta esentzia” izenburukoa inauguratuko da, ostiralean, Bertizko Jaurerriko jauregian, Kultur programaren barruan.

Nafarroako Museoak “José Latova. 40 urte arkeologia-argazkigintzan”



izenburukoa eskainiko du; Oteiza Museoak “Interpretazioak” programa berreskuratuko du, Imanol Marrodán artistak Altzuzako zentroan garatutako “Arma isilak gerra lasaietarako” izenburukoaren eskutik; eta Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak “José Velasco Hernándezen argazkiak (1897-1974)” eta “Pablo Sarasate-Alberto Huarte: adiskidetasun baten lekukotzak” hartuko ditu.

Erriberriko jaialdian asteburu honetan eskainiko den obretariko bat da Luces de Bohemia.

Pasaporte pertsonala eta/ edo familiarra da. Doakoa da eta hamahiru zentroetan eskuratu daiteke sarreran. Erakunde bakoitzaren zigilua bisita egindakoan eskuratuko da.

Programazio kultural osoa [hurrengo estekan](#) kontsulta daiteke.